

Kutxabankek finantzaketa jasangarria eman dio Funespañari, berdeak eta sozialki arduratsuak diren proiektuei laguntzeagatik

- *Mailegu jasangarri bat formalizatu dute 'KPI-linked' formatuan, hiru jasangarritasun-adierazleri lotuta*
- *4 urterako amortizazio-epearekin, interes-tasa finkoa hiru adierazleren –ingurumen-adierazle baten eta bi adierazle sozialen– betetze-mailaren arabera aldatuko da*
- *Bankuak koordinatzaile jasangarri gisa jardun du, eta Valora-k eragiketaren aholkulari jasangarri gisa*

Bilbo, 2021eko uztailaren 27an.- Kutxabank finantza-erakundeak eta Funespaña Taldeak –ehorzketa-sektoreko erreferentzia-taldea, Funetxearen bidez Euskadin presentzia handia duena– izaera jasangarria duen 3 milioi euroko mailegu bat sinatu dute, eta amortizazio-epea 4 urtekoa da.

Karbono-aztarna murriztea, parekotasun-neurriak ezartzea eta kolektibo kaltebera edo ahulentzako laguntza- eta sentsibilizazio-ekintzak areagotzea helburu duten hainbat proiektu jarri ditu abian Ehorzketa Taldeak.

Horrela, Funespañak finantzaketa-marjina hobetzea aurreikusten du, **karbono-aztarnarekin lotutako adierazleak betez**, hots, errausketa-zerbitzuek eragindako isuriak murriztuz, **erantzukizun-postuetan emakumezko langileak sustatuz** eta **kolektibo kaltebera edo ahulentzako laguntza- eta sentsibilizazio-ekintzak garatuz**. Betetze horien baliozkotzea Valorak, kanpoko aholkulari jasangarri batek, egingo du, eta 'Second Party Opinion' betetze-txostena ere berak egingo du. Horri esker, mailegu hau aipaturiko hiru jasangarritasun-adierazleekin lotu ahal izango du Funespañak.

Adierazle horiek bat datoz Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin, zehazki, 13. GJHarekin, zeinak klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea baitu oinarri, 5. GJHarekin (generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume guztiak ahaldunduz) eta 10. GJHarekin (hainbat kolektiboren desberdintasuna murriztea).

Funespañaren eta Funetxearen eginkizuna, Euskadin, heriotzaren inguruko zerbitzuak ematea da, irtenbide pertsonalizatuak bilatzeko aukerak eskainiz, prestazioaren bikaintasunarekin batera, sortutako krisi emozionala eta horren ondorioak gainditzen laguntzeko familiei. Bere balioen artean, ingurumenarekiko errespetua nabarmentzen da, etorkizuneko belaunaldiei mundu hobea uztea izanik bere helburua. Eragiketa honen bidez, **Funespañak pertsonetikiko konpromisoa indartzen du, gizarteari, oraingoari zein etorkizunekoari, ageriko ondare bat uztea ahalbidetuko duten ekintzak bultzatuz eta indartuz**, Taldearen hazkunde jasangarrirako lanaren barruan.

"Urteak dira Funespaña erabat konprometituta dagoela ekologia-mailan, bere ingurumen-inpaktua, berotegi-efektua eta kutsadura murrizteko, baita hondakinak minimizatzeke eta baliabide naturalen

erabilera optimizatzeko ere. Era berean, erreferentzia gara ehorzketa-sektorean politika sozialki arduratsuak ezartzen, hau da, berdintasuna edo gizarteratzea bezalako alderdiak sustatzen dituzten politikak", azaldu du Rafael Gómez de Castrok, Taldeko finantza-zuzendariak.

"Sinadura honek agerian uzten du duela urte batzuetatik hona Taldearen Zuzendaritzak hartutako konpromisoa, ingurumenari eta gizarteari dagokionez mundu hobea bermatuko duten ekimenak bultzatuz, eta jasangarritasunaren kontzeptua gure estrategia korporatiboan txertatuz", erantsi du Rafael Gómez de Castrok.

Finantzaketa hau beste urrats bat da Kutxabankentzat, gizartean eta ingurumenean eragin positiboa duten inbertsioei laguntzeko estrategian. **Kutxabankek negozio-eredu jasangarria sustatzearen alde egiten du**, ekonomia, gizarte eta ingurumenaren arloetan duen eragin positiboa maximizatzeko gai izango dena, kapital pribatuaren fluxuak birbideratuz eta bezeroei negozio-eredu jasangarriagoetarako trantsizioan lagunduz. *"Izan ere, lehen seihilekoan Erakundeak % 15 igo du finantzaketa jasangarria"*, adierazi du Ibon Imatz-ek, Kutxabankeko Enpresa zuzendariak.

Funespañari buruz

Funespaña heriotzaren inguruko zerbitzuen enpresa-talde bat da, bere profesionaltasunaren eta hurbiltasunaren bidez, familiei kudeaketa integral pertsonalizatua eskaintzeko konpromisoa duena. Profesional ugari ditu, 22 probintzian banatuta, eta horietan eguneko 24 orduetan ematen dira zerbitzuak. Argibide gehiago: <https://www.funespana.es/>

Prensa-harremana:

axicom para Funespaña | Marta Cuenca m: 646 260 354 e: marta.cuenca@axicom.com | Gema Quintana m: 636 023 516 e: gema.quintana@axicom.com

Informazio eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legea betez, jakinarazten dizugu zure datuak gure fitxategietan jasota daudela, eta AXICOM SPAIN S.L. dela fitxategi horien arduraduna, komunikabideei informazio-jakinazpenak bidaltzeko. Bidalketa hau jasotzen jarraitu nahi ez baduzu, idatziezaguzu hona: buzon@axicom.com